



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko urtarrilaren 10a

2 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak bazter utzia (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, zenbait epaitegi zaintzeko zerbitzua pribatizatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—Galdera, Toki Itunerako Departamentuarterko Batzordearen lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).

—Galdera, errenta aitortpena Interneten bidez egin ahal izateko oztopoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Galdera, Europar Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak ikergai hartuta, Nafarroako Foru Komunitatean egitekoa den inkesta soziolinguistikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—Galdera, Nafarroako Ehizari buruzko Batzorde Aholku-emaileko kideak izendatzeko irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Galdera, aurrekontuko “Euskara sustatzeko jarduerak” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Galdera, aurrekontuko “Euskara erabiltzeko programak” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Galdera, aurrekontuko “Gau eskoletarako diru laguntzak” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, aurrekontuko “Musikako goi mailako ikasleentzako bekak” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—Galdera, aurrekontuko “Deialdi eta programen publizitate eta propaganda” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—Galdera, aurrekontuko “Euskaltzaindiarekin hitzarmena” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

—Galdera, aurrekontuko “Norberak hizkuntzak ikasteko sozietate publikoa” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko abenduaren 27an egindako Osoko Bilkuran, 2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua baztertzea erabaki zuen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Zenbait epaitegi zaintzeko zerbitzua pribatizatzeari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak zenbait epaitegi zaintzeko zerbitzua pribatizatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak zenbait epaitegi zaintzeko zerbitzua pribatizatzeari buruzko galdera egin zuen, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hura bideratzea erabaki zuen 2001eko uztailaren 3an. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako epaitegiak zaintzeko segurtasun pribatua kontratatzeke erabakia ez da arrazoi ekonomikoengatik soilik hartu, horren atzean Nafarroako Foru Komunitateko instituzioen eraikin eta instalazio guztiak zaindu eta babesteko eredu bakar eta arrazional bat arian-arian ezartzeko erabakia ere baitago. Eredu horren arabera, segurtasun enpresetako zainzaile pribatuak Segurtasun pribatuari buruzko uztailaren 30eko 23/1992 Legean zein hura garatzeko erregelamenduan –abenduaren 9ko 2364/1994 Errege Dekretuaren bidez onetsia– eurei esleitzen zaizkien eginkizunnez arduratuko dira, eta aldiz, Foruzaingoak eta –eskumenak eskumen– Estatuko Segurtasuneko Indar eta Gorputzak poliziaren eginkizun tipiko eta berariazko arduratuko dira, hala nola atxilotetzez, atxilotuak zaindu eta lekuz aldatzeaz eta kasuan kasuko instalazio edo ondasun higiezineko kanpoaldeko segurtasun jarduketaz...

2. Ezin zaio orokorkerien bidez erantzun segurtasunerako antolamenduen artean –zaintzaile pribatuen ala foruzainen bidezkoa den– diru aldetik dagoen aldearen gaineko galderari. Segurtasun pribatuko zerbitzuen kostua hartzaileen eskaintzetan zein kontratuetan finkatzen da, jakina. Foruzaingoak eskaintako segurtasuna garestiagoa da, besteak beste handiagoak direlako foruzainen lansariak –bat datoz haien eginkizunen izaerarekin eta prestakuntza handiagoarekin– bereizi egiten delako babestu beharreko objektuen arabera. Neurri handi batean, zenbait faktore estrukturalak eragindako gastu aldagarriek mugatzen dute: polizia-baliabideen egoitzatik babestu beharreko instalazio edo eraikinera dagoen distantzia, egin beharreko zerbitzuaren ezaugarriak, babesa noiz eman behar den (eguneko lanaldia, astekoa edo urtekoa); izan ere, horrek eragin handia du zerbitzuak antolatzeko eta kostuak eragiten ditu joan-etorrietan eta nominaren osagai aldagarrietan.

3. Zehazki, Agoitz, Tuter, Lizarra eta Tafalla-ko egoitza judizialak zaintzeko segurtasun pribatua kontratatzea Foruzaingoak zerbitzu hori bera ematea baino %56 merkeagoa da.

4. Nafarroako Gobernua ondoko irizpideak baliatzen ari da Nafarroako Foru Komunitateko instituzioetako eraikin eta instalazioetako segurtasuna dela-eta –bidez batez esanda, gure inguruko herrialde eta instituzioetan ezartzen ari diren segurtasun sistemen gisakoa da gurea–:

– Zaintzaile pribatuak kontratatzea, segurtasun enpresen bidez, segurtasun pribatuari buruzko araudian halakoei esleitzen zaizkien eginkizunak betetzeko.

– Berariaz polizialak diren eginkizunak edo erakundeen ordezkariak bete beharreko eraikin eta instalazioetara mugatzea foruzainen presentzia, zaintzaile pribatuek ez baitute halako eginkizunak betetzeko baimenik.

– Segurtasun sistemen kontratazioa, kudeaketa eta koordinazioa Barne Zuzendaritza Nagusian zentralizatzea; Foruzaingoak segurtasun pribatuak emandako zerbitzua ikuskatuko du, eta, hala-korik egiten denetan, hari laguntzeko polizia zerbitzuak emanen ditu.

– Babestutako eraikin eta instalazioetako titularrak aurrekontuetan bere gain hartutako kostua.

5. Iruñeko justizia eraikina Foruzaingoak soilik zaintzen du, eta berriz, Agoitz, Tuter, Lizarra eta Tafallakoak segurtasun pribatuak. Etorkizunean

segurtasun pribatua sartuko da Iruñekoan ere, eta horrenbestez bitariko zerbitzua eratuko da. Foruzaingoa hedatu ahala gainontzeko egoitza judizialetan ere egonen dira foruzainak, beharrianak beharrian.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 23an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurra Indurain

Toki Itunerako Departamentuarterko Batzordearen lanei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak Toki Itunerako Departamentuarterko Batzordearen lanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aranaz Echarri jaunak galdera egin du Toki Itunerako Departamentuarterko Batzordearen lanei buruz. Hona Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna:

Aurrera eraman den lehenbiziko jarduketa izan da balizko transferentzien egoerari buruzko diagnosi eta katalogo orokor bat egitea, banakako informazioa eta Nafarroako Gobernu zuzendaritza nagusi guztien ekarpenak erabiliz, departamentuarterko batzordearen bitartez. Une honetan, auzia da transferentzien lehenbiziko multzoa hautatu eta haiek ekonomikoki baloratzea.

Toki Administrazioarako Zuzendaritza Nagusiak azterlan bat egin du foru arauak nazio mailan egiten den toki itunaren onspenaren ondorioz gertatuko diren hobekuntzei egokitzeko, jada Estaturko legeetan sartu baitira horiek. Testu hori lege proiektu gisa tramitatuko da.

Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoak zenbatekoa izanen den eta zer formularen arabera banatuko den ezartzen duen Foru Lege proiektu bat prestatu eta tramiterako aurkeztu da. Formula hori Nafarroako Unibertsitate Publikoko aditu talde batek prestatu eta toki administrazioetako ordezkariak onetsi zuten; gai hori toki ogasun guztietako funtsezko alderdi bat da, guk jada aurreratua genuena.

Aurrera pausuak eman dira Nafarroako Gobernuaren erregistroak toki entitateen bitartez deszentralizatzeko bidean; horri buruzko proiektua hemendik gutxira zehaztu ahal izanen da.

Lanak orain dauden moduan, oraindik ere ez da bukatu berehala transferitu daitezkeen eskumen zehatzak hautatzeko prozesua, eta zehaztu gabe daude horren kostuak eta finantzaketa; hala eta guztiz ere, eskumen horiek identifikatzeko lanak jada hasiak dira.

Iruñean, 2001eko uztailaren 16an.

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurra Indurain

Errenta aitortpena Interneten bidez egin ahal izateko oztopoei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak errenta aitortpena Interneten bidez egin ahal izateko oztopoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 25eko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du Errenta aitortpena Interneten bidez egin ahal izateko oztopoei buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Aurtengo Errentari buruzko Kanpaina aurkezteko eskaintako prentsaurrekoan iragarri bezala, Nafarroako Tributu Ogasunaren web orritik laguntza programak maiatzaren 7tik deskargatu ahal izan ziren. Egun horretatik hasi eta ekainaren 22ra bitartean, Nafarroako zergadunek 2000. urteko ekitaldiko errenta aitortpena telematikoki aurkeztu ahal izan zuten. Horretarako, beharrezkoa zen, aurretik, Diru eta Tinbre Fabrika Nazionalari sinadura digitalari buruzko ziurtagiria eskatua izatea.

Kanpainan zehar aitortpena egiteko laguntza programaren 1.510 CD ale saldu dira, ale bakoitzeko 1.000 pezeta ordainduta.

Aurreko zenbakiei begiratuta, ondoriozta daiteke CDak salduz lorturiko dirusarrerak ez direla handiak izan, eta hala da salmentarako ezarritako prezioak helburu bakarra zuelako: Nafarroako zergadunek masiboki eskuratu nahi ez izatea; hala gertatuko zen, seguruenera, laguntza programa

dohainik eskaini izan balitz. Hori dela eta, ez dago inolako loturarik saldutako CD kopuruaren eta aplikazioa Tributu Ogasunaren webean kargatzeko dataren artean.

Azkenik, gogorarazi behar da Nafarroako Tributu Ogasuna dela errentaren kanpaina honetan neurri handienean garatu duena informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera.

Jakina den bezala, bigarren urtea da hau Nafarroako zergadunei, aitortpena edonon eginda ere, Tributu Ogasunaren bulegoetan ematen zaien laguntzaren berdina ematen zaiela. Entitate laguntzaileen 900 operadoreen bitartez, Datuak Babesteko Agentziarekin adosturiko prozedura batez, hain zuzen ere bitarteko telematikoen aprobetxamenduan oinarriturik, Nafarroako zergadunak aukera izan du bere aitortpena egiteko unean Nafarroako Tributu Ogasunean berari buruz duten informazioa ezagutzeko.

Prozedura horrekin, 215.000 aitortpen baino gehiago egin dira; haiei interneten bitartez zuzenean errenta aitortpena aurkeztu zuten 151 zergadun nafarren aitortpenak gehitu behar zaizkie.

Gauzak horrela, esan daiteke Nafarroako Tributu Ogasuna oso ongi ari dela erabiltzen informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak.

Zalantzarik gabe, arlo honen garapena hasi besterik ez da egin, eta Nafarroako Toki Ogasunak hurrengo hilabeteetan beste zerbitzu batzuk eskainiko ditu zergadunek tresna informatikoak erabil ditzaten sustatzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 3an.

Ekonomi eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Europar Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak ikergai hartuta, Nafarroako Foru Komunitatean egitekoa den inkesta soziolinguistikoa-ri buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Europar Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak ikergai hartuta, Nafarroako Foru Komunitatean egitekoa den inkesta soziolinguistikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 20ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko

foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Europar Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak (ingeles, frantsesa eta aleman) ikergai hartuta, Nafarroako Foru Komunitatean egitekoa den inkesta soziolinguistikoari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Aipatu inkesta "Azterlan eta proiektu soziolinguistikoak egitea" izeneko 42000-2400-4551 kontusailaren kargura eginen da. Aipatu kontusailean 12 milioi pezetako kopurua dago.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 7an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Nafarroako Ehizari buruzko Batzorde Aholku-emaileko kideak izendatzeko irizpideei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Ehizari buruzko Batzorde Aholku-emaileko kideak izendatzeko irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 25eko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Nafarroako Ehizako Batzorde Aholku-emaileko kideak izendatzeko irizpideei buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Urtarrilaren 22ko 45/1996 Foru Dekretuaren bitartez, Ehizako Batzorde Aholku-emailea sortu zuen maiatzaren 3ko 144/93 Foru Dekretuko 3. artikulua aldatu zuen. Foru Dekretuak ezarri zuen zein izanen ziren batzordekideak:

a) Batzordeburua: Natura Zaintzeko Zerbitzuko burua.

b) Adjudikazio zuzeneko ehiza-barrutietako adjudikazio-hartzailen diren ehiza elkarte lokaletako bederatzi ordezkari, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak ezarriko duen moduan izendatu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

c) Nafarroako Ehiza Federazioko ordezkari bat.

d) Nafarroako Ehiztarien Elkarteko (ADECA-NA) ordezkari bat.

e) Lehendakariak libreki izendaturiko ehiza adituak (gehienez ere hiru).

f) Idazkaria, hizpide eta botoarekin: Ehiza eta Arrantza Ataleko burua.

Lehendakariak, egokitzat jotzen badu, beste pertsona eta erakunde batzuei eskatu edo kasua bada gonbita egin ahal izanen die, gaien buruz daukaten ezagutza dela-eta.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren urtarrilaren 31ko 29/1996 Foru Aginduaren bitartez, herrietako ehiza elkarteek Ehizako Batzorde Aholku-emaileko ordezkariak izendatzeko modua ezarri zuen.

Hautaturiko irizpideak lurraldea du oinarri; horretarako, 9 eremutan banatu zen Nafarroa, ehiztarien elkarteak hurbiltasun geografikoaren arabera bilduz. Elkarte bakoitzeko buruaren botoak bazkideen kopuruaren proportzioan balioko du.

2. Ehizako Batzorde Aholku-emailearen lehen bilkura 1996ko maiatzaren 16an egin zen; haren aktan jasotzen da batzorde horretarako barne erregelamendurako proposamena. Akta hori 1996ko uztailaren 2an onetsi zen, batzordearen bigarren bilkuran. Erregelamendu horren 4. artikuluan ezartzen da batzordeko karguek hiru urtez iraunen dutela. Ez dira kideak berritu.

3. Ez da ezarri inongo ordezkartza sistema berririk.

4. Ingurumen Departamentuak 2001. urtearen bukaera baino lehen egin nahi du hori.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 11n.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

Aurrekontuko “Euskara sustatzeko jarduerak” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Euskara sustatzeko jarduerak” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du aurrekontuko 41400-30000-2269-4229-04 proiektuaren “Euskara sustatzeko jarduerak” kontusailaren betetzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Aurrekontuko lerro horren zuzkidura 27.800.000 pezetakoa da, eta gaur egun 22.844.755 pezeta daude beterik, proiektu hauetan, besteak beste:

1. “Bertsolaritza irakaskuntzan” izeneko programa gauzatzea.
2. Euskara sustatzeko jarduerak eta euskarazko jarduera osagarriak egiteko laguntzen deialdia.
3. Euskara erabiltzeko estrategiak eraman dituzten ikastetxeentzako laguntzen deialdia.
4. Lehiaketak, arlo hauetan: literatura, etnologia eta dialektologia, irakurketa eta deklamazioa, bertso paperak, antzerki topaketak, eta abar.

Jarduera hauen helburua da euskararen irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak sendotzeko berriazko jarduketak sustatzea.

Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzuak deialdi bakar batean (maila ez-unibertsitarioetan euskara sustatzeko jarduerak egiteko laguntzen deialdia baimentzen duen martxoaren 12ko 78/2001 Foru Agindua) bildu ditu ikastetxeei lehen bereizirik eskaintzen zitzaizkien sustapen jarduerak.

Urte hasieran banatu zen ERABIL izeneko gida, non ikastetxeen jarduna antolatzen duten

multzo ezberdinetan sistematizaturiko jarduerak biltzen diren.

Aipatutako aurrekontu lerro horren bitartez finantzatzeko diren jarduketak, funtsean, hauexek dira:

Lehendabizi, euskarazko jarduera osagarriak diruz laguntzea. Mota askotako jarduera artistikoak sartzen dira, hala nola, magia, pailazoak, txo-txongiloak, antzerkia, eta abar. Jarduera hauen xedea euskara hurbiltzea da, modu ez hain formal edo akademikoan. Azkeneko kanpainan mota horretako 227 jarduera bete dira.

Bigarrenik, ikasleak eta euskal idazleak elkar-tzea da xedea, gelan lantzen diren liburuen egileekin, ahal dela. 2000-2001 ikasturtean 57 hitzaldi egin dira.

Hirugarrenik, hizkuntzaren erabilera tekniko normalizatzea da gure asmoa, eta horretarako hitzaldi zientifikoak (Elhuyar Fundazioarekin izenpeturiko hitzarmena) programatu dira; ildo hone-tan, 2000-2001 ikasturtean 50 hitzaldi eman dira bigarren hezkuntzako ikastetxeetan biologia, ingu-rumen eta elikadurari buruz.

Laugarrenik, ikasleen komunikazio gaitasuna areagotu nahi dugu, bertsolaritzaz baliatuz. Eus-kara Batzordeak, Nafarroako Bertsozale Elkartearekin batera, hiru ildotan egin izan du lana:

1. Bertsolaritza eskolan. 14 eskola ordu astean, zuzenean ikasleekin, eta zabalkunderako unitate didaktikoak egitea prestakuntza ikastaroan.
2. “Bertso-eskola”. Eskola orduetatik kanpoko jarduera, bertsolaritzan sakontzeko xedea duena.
3. Bertso-paperen lehiaketa. 42 ikastetxek hartu dute parte, guztira 2.350 lan aurkeztuz.

Azkenik, euskararen erabilera normalizaziorako eragilea izatea bilatzen dugu, euskal literatura, dialektologia eta deklamazio lehiaketen bitartez, antzerki topaketak eta haur kantarien txapelketak antolatuz.

Literatura, dialektologia eta deklamazio lehiaketetara 525 lan inguru aurkeztu dira. Antzerki topaketetako parte hartzeaz, berriz, esan beharra dago 11 ikastetxek trukatu dituztela esperientziak. Haur kantarien txapelketa duela 10 urtetik egiten da eta aurtengoan 84 taldek hartu dute parte, orotara 540 ikaslek eta 140 musikaririk osatuak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 20an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Euskara erabiltzeko programak” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Euskara erabiltzeko programak” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du aurrekontuko 41400-30000-2269-4229 proiektuko “Euskara erabiltzeko programak” kontusailaren betetzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

“Euskara erabiltzeko programak” kontusailaren zuzkidura 21.500.000 pezetakoa da eta horietatik 20.181.903 daude beterik.

Proiektu honen aurrekontuaren zatirik handiena funtsezko bi helburutarako erabiltzen da. Hauexek:

Lehenbizikoa, D, B eta A hizkuntza ereduak ikasle taldeek, haien tutorearekin, euskal eremu herri batean egiten duten astebeteko egonaldiaren kostuak, zati batean, ordaintzeko.

Bigarrena, banaka matrikulatzen diren A eredu ikasleek, udan astebeteko egonaldia egitearen kostuak, zati batean, finantzatzeko.

2000ko urritik 2001eko ekainera bitarte 27 egonaldi egin dira, eta 751 ikaslek hartu dute

parte. Udan kanpaldiak egiten dira, txandaka, ikasgaietako bat euskara duten ikasleentzat. 9 txanda antolatu dira eta 450 ikaslek hartu dute parte.

Dirulaguntzak banatzeko irizpideak hauexek izan dira:

Ikasturtean zehar egiten diren egonaldietarako lehentasuna ematen zaie euskarazko irakaskuntzaren ereduak (B eta D ereduak) taldeei. Udako txandetan irizpidea kontrakoa da, horiek ikasgaien artean euskara duten ikasleentzat (A ereduakentzat, beraz) besterik ez baitira.

Txanden adjudikazioa hurrenkera honetan egiten da:

– D eredu DBHko ikasle taldeak.

– D eredu Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle taldeak.

– A eredu DBHko ikasle taldeak.

– A eredu Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle taldeak.

Bestalde, lehentasuna eman nahi zaie ikaste-txeko plangintza espresuki ageri diren planteamendu pedagogiko bereziak dituzten taldeei. Berriazko planik egon ezean, eskabidearen erregistroko data hartzen da aintzat, eta txandak sarrera egunaren arabera banatzen dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 20an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Gau eskoletarako diru laguntzak” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Gau eskoletarako diru laguntzak” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du aurrekontuko 41400-30000-4810-4229-02 proiektuari eta “Gau eskoletarako diru laguntzak” kontusailaren betetzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Proiektuaren zuzkidura, osotara, 107.700.000 pezetakoa da eta egun 60.779.188 pezetako kopurua dago betetik.

Aurrekontuetako lerro hori euskaltegi eta gau eskola pribatuei laguntzeko da. Helduen euskalduntzean aritzen diren entitate pribatuentzako 2000-2001 ikasturteko bigarren eta hirugarren hiru hilekoetako dirulaguntzak ordainduta daude. Libratu gabekoa 2001-2002 ikasturteko udako

ikastaroei eta lehen hiru hilekoari dagokien gastu aurreikuspenarena da.

Laguntzak adjudikatzeko irizpideak martxoaren 6ko 64/2001 Foru Aginduan ageri dira; horren bidez laguntzak emateko deialdia onetsi zen eta modulu hauek ezarri:

1. Ikastaro arrunta, 125 pezetako dirulaguntza ikasle eta orduko.

2. Barnetegia, 900 pezetako dirulaguntza ikasle eta orduko.

Foru Agindu horrek berak 5. oinarrian adierazten du, emandako dirulaguntzak ordainduko direla aurrekontuko kontusaila ahitu arte, eta dirulaguntzen eskaera aldatuz gero kontusaila hainbanatu egingen dela.

Aurrekontuko diru guztia gastatzea aurreikusi da, ikusirik eskaera egin duten ikastetxeen eta ikasleen kopurua.

Dirulaguntza jaso duten gau eskolen xehetasunak daude erantsirik, informazioa zabalagoa eta zehatzagoa izan dadin.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 20an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

GAUESKOLAK ETA EUSKALTEGIAK.
2. HIRUHILEKOA. 2000-2001.GAUESKOLAK ETA EUSKALTEGIAK.
3. HIRUHILEKOA. 2000-2001.

EUSKALTEGIA	EDU./I.F.Z. OROTARA	EUSKALTEGIA	EDU./I.F.Z. OROTARA
"IRUÑERRI". UGT. IRUÑA	G-31 077076 787.500	"IRUÑERRI". UGT. IRUÑA	G-31 077076 739.062,5
"CONSTANTINO SALINAS" UGT	G-31 246689 246.000	"CONSTANTINO SALINAS" UGT	G-31 246689 210.250
Escuela de padres "STO. TOMAS"	W-00091413 72.000	Escuela de padres "STO. TOMAS"	G-31 059843 38.500
"PAZ DE ZIGANDA" IKASTOLA	F-31-098908 220.000	"PAZ DE ZIGANDA" IKASTOLA	F-31-098908 175.000
"ORREAGA", "Amairu" IKASTOLA	G-31 202500 540.500	"ORREAGA", "Amairu" IKASTOLA	G-31 202500 340.750
SAIGOLA ELKARTEA	G-31442601 185.250	SAIGOLA ELKARTEA	G-31442601 135.000
"JAI EDER" Gazte Elkartea	G-31 539075 60.000	"JAI EDER" Gazte Elkartea	G-31 539075 50.000
MALERREKAKO EUSKALTEGIA	G-31 246911 615.250	MALERREKAKO EUSKALTEGIA	G-31 246911 471.250
BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA	G-31 240005 1.064.500	BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA	G-31 240005 776.000
BIANAKO EUSKALTEGIA	G-31 275142 120.000	BIANAKO EUSKALTEGIA	G-31 275142 112.500
ATARRABIAKO IKA.	G-31 238199 1.363.000	ATARRABIAKO IKA.	G-31 238199 1.189.000
IMOTZ-BASABURUKO Euskal.	G-31 353220 108.000	IMOTZ-BASABURUKO Euskal.	G-31 353220 83.250
LEITZAKO Euskaltegia.LEITZA	G-31 263072 469.500	LEITZAKO Euskaltegia.LEITZA	G-31 263072 359.750
LARRAUNGO Euskaltegia	G-31 366727 144.000	LARRAUNGO Euskaltegia	G-31 366727 114.000
ERMITAGAÑA-MENDEBALDEA	G-31 453954 660.000	ERMITAGAÑA-MENDEBALDEA	G-31 453954 563.750
"SAHATS" Euskalt.BARAÑAIN	G-31 252877 2.184.000	"SAHATS" Euskalt.BARAÑAIN	G-31 252877 1.865.500
"ARTURO KANPION" EUSKALT.	G-31 261290 6.361.375	"ARTURO KANPION" EUSKALT.	G-31 261290 5.593.750
OROTARA (1)	15.200.875	OROTARA (1)	12.817.313
ULTZAMAKO AEK	EDU 00343 258.000	BAZTANGO AEK	G-20088548 291.000
BAZTANGO AEK	EDU 00272 336.000	AGOITZEKO AEK	G-20088548 357.000
ERRONKARIKO AEK	EDU 00364 412.000	"BASAJAUN"AEK.ERROTXAPEA	G-20088548 1.139.250
TAFALLAKO AEK	EDU 00295 1.188.375	ZANGOZAKO AEK	G-20088548 252.000
"ITSASI" AEK. ALTSASU	EDU 00306 1.356.500	"AUZALOR". AEK. BERRIOZAR	G-20088548 621.750
IRURTZUNGO AEK	EDU 00476 279.000	NOAINGO AEK	G-20088548 246.750
"ARRIGARAI". AEK de TUDELA	EDU 00296 465.000	IPURTARGI AEK. ZIZUR	G-20088548 252.000
BEIÑAT ETXEPARE EUSK.AEK	EDU 00298 881.125	XALBADOR AEK. ANTSOAIN	G-20088548 437.750
AGOITZEKO AEK	EDU 00277 408.000	TXANTREAKO AEK	G-20088548 863.937,5
ZANGOZAKO AEK	EDU 00278 252.000	IRRINTZI AEK. DONIBANE	G-20088548 2.191.875
ILUNBERRIKO AEK	EDU 00495 120.000	ARROSADIAKO AEK	G-20088548 781.750
MUTILOABEITIKO AEK	EDU 00475 315.000	TAFALLAKO AEK	G-20088548 1.059.000
NOAINGO AEK	EDU 00283 444.000	"ARRIGARRI" AEK. TUDELA	G-20088548 406.875
"ZALDUALDE". AEK. BURLATA	EDU 00490 1.890.000	ITSASI AEK. ALTSASU	G-20088548 1.191.125
GARESEKO AEK	EDU 00347 285.000	ULTZAMAKO AEK	G-20088548 252.000
"IPURTARGI" ZIZURKO AEK	EDU 00284 402.000	GARESKO AEK	G-20088548 221.250
"AUZALOR". AEK. BERRIOZAR	EDU 00282 741.000	IRUÑEZAR AEK. IRUÑEA	G-20088548 1.056.375
ARROSADIAKO EUSKALT. AEK	EDU 00293 945.000	ERRONKARIKO AEK	G-20088548 293.250
"IRRINTZI" DONIBANEKO AEK	EDU 00292 2.580.000	MUTILOABEITIKO AEK	G-20088548 141.625
"XALBADOR".ANTSOAINGO AEK	EDU 00286 541.875	IRURTZUNGO AEK	G-20088548 242.500
"BASAJAUN"AEK.ERROTXAPEA	EDU 00499 1.398.000	ZALDUALDE AEK. BURLATA	G-20088548 1.580.438
TXANTREAKO AEK	EDU 00287 1.047.000	ILUNBERRIKO AEK	G-20088548 120.000
"IRUÑEZAR".IRUÑEKO AEK	EDU 00349 1.375.500	BEIÑAT ETXEPARE AEK	G-20088548 841.125
OROTARA (2)	17.920.375	OROTARA (2)	14.840.626
OROTARA (1) + (2)	33.121.250	OROTARA (1) + (2)	27.657.938

Aurrekontuko “Musikako goi mailako ikasleentzako beka” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Musikako goi mailako ikasleentzako beka” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du aurrekontuko 41710-22001-4800-4229-02 proiektuaren “Musikako goi mailako ikasleentzako beka” kontusailaren betetzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Musikako goi mailako ikasleentzako beken lerroari 20.000.000 pezetako aurrekontua atxiki zitzaion, gehitzeko aukerarekin, 2001eko gastuetarako. Egun 10.331.800 pezeta emanik daude onarturiko 10 beken zuzkiduran.

Adierazi behar dut beka horietakoren bati emandako zenbatekoa berrikusi beharko dela,

espedienteak tramitatzerakoan ez genekielako zein zen Euskadiko Goi mailako Kontserbatorioko matrikularen zenbatekoa 4 kasutan.

Hasiera batean 17 eskabide jaso genituen, horietatik 9 deialdi honen berezko hartzaileek eginak, hau da, LOGSEaren Erdi Maila 2000-2001 ikasturtean amaitu zutenek.

Eskabideen espedienteak berraztertutik, behin-behineko adjudikazioa egin zen eta 13 eskatzaileari eman zitzaion; behin-behineko adjudikazio hartzaileetako hiruk uko egin zioten bekari.

Bekadunek eskatu dituzten ikastetxeak hauek dira:

Euskadiko Goi Mailako Kontserbatorioa

Kataluniako Goi Mailako Musika eskola

Zaragozako Goi Mailako Kontserbatorioa

Madrileko Goi Mailako Kantu Eskola

Madrileko Goi Mailako Kontserbatorioa

Salamanca Goi Mailako Kontserbatorioa

Behin-behineko aurrekontuak 10 bekaren adjudikazioa hartzen du, 900.000 pezetatik 1.250.000 pezetara bitartekoak.

Dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuak lojamendua, bidaia eta matrikula dira eta hona beka bakoitzaren xehetasunak:

Zk.	Lojamendua	Bidaia	Matrikula	Beka bakoitza, guztira
1	900.000	20.000	45.000	965.000
2	900.000	40.000	200.000/400.000	1.250.000
3	898.200	14.000	113.000	1.025.000
4	750.000/900.000	1.700	1.000.000 (¿)
5	900.000	1.700	1.000.000 (¿)
6	900.000	40.000	1.000.000 (¿)
7	900.000	1.700	1.000.000 (¿)
8	890.000	4.000	82.800	976.800
9	900.000	35.000	200.000/400.000	1.250.000
10	750.000	30.000	85.000	865.000
	Oсотara, gutxi gorabehera 10.000.000 PTA	Oсотara, gutxi gorabehera 200.000 PTA	Oсотara, gutxi gorabehera 1.500.000 PTA	OSOTARA, GUTXI GORABEHERA 10.331.800

Adjudikatzeko irizpideak berriz, martxoaren 26ko 113/2001 Foru Aginduan eskatutakoak dira, alegia:

1. Nafarroan jaioa edo bertako erroldan sartua.
2. Eskatzailea eta familia unitateko gainerako kideak Nafarroan izanen dira PFEZaren zergadun (errentaren aitorpena egitera beharturik baldin badaude).
3. Musika ikasketetako goi mailako ikastetxe batean tokia eskuratu edo eskatu izana, Musikako goi mailako tituluaz – edo ikastetxea atzerrian bal-

din badago, Espainian homologatzen den tituluaz – jabetzeko programa batean.

4. Dagokion eskabidea behar diren denboran eta moduan aurkeztea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 20an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Deialdi eta programen publizitate eta propaganda” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Deialdi eta programen publizitate eta propaganda” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du aurrekontuko 43000-40000-2262-4551 proiektuaren “Deialdi eta programen publizitate eta propaganda” kontusailaren betetzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Aurrekontu kontusail horren hasierako aurrekontua 2.000.000 pezetakoa zen, eta gero beste 5.000.000 pezeta gehitu zitzaizkion, 43000-4810-422400 “Hitzarmena Nafarroako unibertsitateekin eta beste entitate zientifiko eta kulturalekin” izeneko kontusailaren kargura.

Hauexek izan dira programa honetatik landu diren kontzeptuak:

– Unibertsitateko garraioaren deialdia; 183.386 pezeta.

– Nafarren ondorengoak, atzerrian daudenak: 140.527 pezeta.

– Prestakuntzaren gida: 420.500 pezeta.

– I+G deialdia: 788.020 pezeta.

– Euskarari buruzko kultura ekimenak: 337.083 pezeta.

– Zaintza zerbitzuaren iragarkia: 46.040 pezeta.

– Udako ikastaroei buruzko publizitatea eta propaganda: 5.000.000 pezeta.

– Programa honetan inbertituriko diru kopurua, guztira, 6.915.556 pezetakoa da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 20an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Euskaltzaindiarekin hitzarmena” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Euskaltzaindiarekin hitzarmena” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko

foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du aurrekontuko 43000-40000-4816-4551 proiektuaren “Euskaltzaindiarekin hitzarmena” kontusailaren betetzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Aurrekontuko kontusail hori betetzeko dago, ez baita izenpetu Euskaltzaindiarekiko hitzarmena 2001. urterako.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 20an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Norberak hizkuntzak ikasteko sozietate publikoa” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Norberak hizkuntzak ikasteko sozietate publikoa” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du aurrekontuko “Norberak hizkuntzak ikasteko sozietate publikoa” kontusailaren betetzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

41710-22001-4400-4229 lerroan, hasiera batean, 10 milioi pezetako kapital soziala jarri zen, bai

eta milioi bateko kopuru handigarri bat ere. Geroago erabaki zen kopurua 30.000.000 pezetako kopurura arte zabaltzea, kopuru hori behar baitzen NHAGk abian jartzeko. Zentro horrek kalitatezko zentro berritzailea izan nahi du Nafarroan hizkuntzen irakaskuntzaren arloan.

2001eko irailaren 15ean, NHAGren gastuek 21.578.000 pezeta egiten dute. Komeni da kontuan hartzea, hain zuzen ere, urtearen bigarren erdian eta zehazki azken hiruhilekoan izanen direla gasturik handienak, ondoko kontzeptuetan: langileak kontratatzea, programa informatikoak, material didaktikoak eta abar erostea. Horren guztiaren helburua da behar den kalitateaz laguntza eman ahal izatea ahal den eta ikasle gehieni.

Lehenbiziko unetik lan egin dugu NHAGen sorreraren helburua betetzeko; hain zuzen ere, sozietatea eratzeko helburu sozialean agertzen dena: “sozietate publiko honen helburu soziala da ikasketen autoikasketa erraztu eta sustatzea, horretarako behar diren metodo eta bitartekoak sortuz eta ikasleei emanez, hizkuntzen irakaskuntza arautuko ikasmilak gainditzera zuzenduriko

edo, erabiltzaileen eskaeraren arabera, berariazko prestakuntza eskaintza baten bitartez, bai eta irakasleak hizkuntzen irakaskuntzaren arloan prestatzea eta prestakuntza horretan sakontzeko bidea ematea”.

NHAGa Nafarroako gizarteak hizkuntzen arloan dauzkan behar berriei erantzuteko jaio da, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak, era askotako ikus-entzunezko multimedia materialak, material, internet, liburuak eta abar aplikatzen ditu irakaskuntzan. Autoikasketa da proiektuaren ardatz nagusia.

Gaur egun, ingelesa, euskara, frantses, alemana, italiara eta atzerriarrentzako gaztelania programekin ari gara lanean, talde txikitan, autoikasketa maila ezberdinekin, mintza praktikako bonoekin, ikastaro trinko presentzialekin eta online ikastaroekin, tutoretzapeko ikastaroekin, urruneko ikasketekin (e-learning) eta neurrirako ikasketekin, besteak beste.

Gaur arte, NHAGak 472 ikasle hartu ditu; horietatik 306 hizkuntza eskola ofizialetako ikasleak ziren. Gure erkidegoko ahalik eta ikasle gehien hartzeko xedez, NHAGak lankidetzat hitzarmen

bat sinatu du Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialarekin, interesa duten ikasleei zerbitzu osagarriak eman ahal izateko; zerbitzu horietako gehienak aurtengo irail eta urriko matrikulazio prozesutik aurrera hasiko dira etortzen.

Halaber, beste hitzarmen bat sinatu da NAPI-rekin 250 funtzionario inguru hizkuntzetan prestatzeko, 2001-2002 ikasturteetik aurrera. Gaur egun, Iruñeko Udalarekin eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiarekin beste hitzarmen bat egitea aztertzen ari gara, funtzionarioak prestatzeko, eta bestelako agente publiko eta pribatuekin ere bai.

Azkenik, aipatu behar dugu Hezkuntza eta Kultura Departamentuak NHAGaz baliatu nahi duela unibertsitatez besteko ikaskuntzetako irakasleak prestatzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 20an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

